

## Harkaitz Cano idazlearekin solasean

Astelehenean aurkeztu zuen Lasarte-Orian jaiotako idazleak, "Zinea eta literatura, Begiaren ajeak" bere azken lana. Durango-ko azokan eskuratu ahal izango da saiakera hau gaurtik aurrera bere beste lan batzuek eta beste zenbait herritarren lanak bezala. /4-5



## Euskal Herriko selekzioaren aldeko ekimena

Egun berean, Leitzan *Geurea ikurrina* eguna antolatu du *Bai Euskal Herriarik*

Lasarte-Oriako ESAIT eta *Bai Euskal Herriarik*, abenduak 13 larunbata, Okendo plazan 13:00etan egingo den *Euskal Herriko Futbolariak* testuari atxikimendu ekimenean parte hartzera gonbidatzen ditu lasarteoriarrak, baita ondoren egingo den argazkian parte hartzera ere.

Tomas Arruti eta Hibai Diezek prentsaurrekoan azaldu zuten, "manifestua sinatu duten Euskal Herriko futbolari eta kirolariei babesa emateko era izango da. Herritarrok hainbatetan eskatu diegu horrelako pausuk eman ditzaten, orain, horen ondoren guri dagokigu, babesa eta atxikimena egitea."

"Euskal Herria internazional mailan ordezkatzeko duen selekzioa nahi dugu, Eskozia,

Taiwan eta beste estatu gabeko nazioak bezala. Gainera, Euskal Herrian ere adibideak badaude, EHSF, EH kickboxing edo pilota. Gaur egun posible denaren seinale, borondatea edukiz gero," adierazi zuten.

### Ikurrinaren alde

Bestalde, egun horretan bertan, *Bai Euskal Herriarik* Leitzan ikurrinaren aldeko ekimena *Geurea ikurrina* eguna antolatu duela ere aipatu zuten.

Egun osoko egitaraua prestatu dute, herri kirolak, herri bazkaria, dantzaldi-erromeria, kale animazio eta kontzertuak, hau guztia Euskal Herriko nortasun ikurrak defendatzeko asmoz. Baina 13:00etan egingo den manifestazioa da hitzordiu nagusia. •



Hibai Diez eta Tomas Arruti Euskal Herriko selekzioaren aldeko prentsaurrekoan.

## Inazio Uriaren hilketa gaitzesteko elkarretaratzea udaletxe aurrean

Inazio Uria 70 urteko arpeziarra eta Altuna y Uria erai-kuntza enpresako administrazio kontseiluko lehendakaria hil zuen asteazkenean eguerdi aldean ETAk, tiroz. Atentatua gaitzesteko Udaletxearen aurrean elkarretaratzea egin zuten herritarrek, udaletxeko langile eta ordezkariak eguerdiko 12:00etan. Deialdira bertaratu zirenek errepidearen bi aldeetara ipini zire eta hama-bost minutuko isilunea egin zuten euripean. •



### GIZARTEA | 3

Michelinen neurri bereziak hartzeko akordio batera iritsi dira

### GIZARTEA | 3

Mikel Laboa gogoan, hainbat ekimen herrian

### KIROLA | 6

Ostadar K.F.k bazkide kanpaina eta atal berriak aurkeztu ditu

**ANAIK**  
JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386  
LASARTE-ORIA

**Zorion-agurrak**



**Olaiz**

Zorionak ikasle!! Behingoz atera dek hire ikasle sena eta lekzio bat eman diguk denel!



**Oier**

Zorionak! Segi hain guapo eta txintxua. Zure izebak.



**Maitane**

Zorionak Maitane zure urtebetetzea delako. Ondo pasa eta muxuak. Familiaren partetik.



**Oihane**

Zorionak zure guraso-en eta Enararen partetik. Ondo pasa!



**Javi**

Zorionak eta ondo pasa asteburua.



**Itziar**

Zorionak sorgintxo. 24 txokolatzeko muxu. Txintxo ibili.



**Aritz**

Zorionak pottolo zure lehenengo urtebetetzean! Ama, aita eta Ene-koren partetik.



**Ander**

Zorionak guapo. Hamar musu handi, aiton-amonen partetik.



**Goiatz**

Zorionak!! Bi muxu handi zure urtebetetze egunean guraso-en eta aiton-amonen partez



**Maite**

Zorionak atsua. Ondo ospatu zure 30 urte lanean zure ileapaindegian. Lankideen partetik.

**Jaiotzak**

Oihana López Ponce, azaroaren 27an  
Narrea Izeta Sánchez, azaroaren 24ean

**Heriotzak**

Carmen Gómez Rouco, azaroaren 28an  
76 urte zituela  
Isabel Vidania Velasco, azaroaren 14ean  
67 urte zituela

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Garaje marra bat alokairuan, erdigunean anbulategi berriaren parean egindako eraikuntza berrian. Tel.: 943 36 48 15.

• Garaje itxi bat alokairuan, ligo de Loiola kalean. Telf: 943 372841.

**Lan-eskariak**

• Klase partikularrik ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia, tel.: 646 717 676.

• Neska bat eskaintzen da haurrak, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel.: 620 036 888.

**Salerosketak**

• Bigarren eskuko teklatu bat erosiko nahi dut: sentsibilitate-duna, kontrapixidun tekladuna eta gutxienez bost "oktava" dituena. Goizetan deitu honako telefono zenbakira, 943 36 78 71, Amaia.

• Salgai txakurkume ederrak. Artzaintza lanerako edo konpainiarako. Moduzko prezioan. Tel.: 652 71 95 24.

• Hamar urteko neska batentzako, bizikleta bat erosi nuke. Tel.: 943 36 63 59, Maite.

• Neska arduratsu bat eta lanerako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel.: 690 304 683.

**Bestelakoak**

• Negozio informatikoa traspasatzen da Lasarte-Orian. Tel.: 943 36 08 32.

**Oharretarako:**

943 366858 • Geltoki kalea 4  
txintxarri@ttakun.com • txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

**Guardiak**

- Ostrala, 5**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Larunbata, 6**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Igandea, 7**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Astlehena, 8**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Asteartea, 9**  
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzetik  
Tel.: 943 361774
- Asteazkena, 10**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529
- Osteguna, 11**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Telefonoak**

- Osasuna / Larrialdiak**
- Osasun Zentroa . . . . . 943 007960
- DYA . . . . . 943 370000
- Gurutze Gorria . . . . . 943 363953
- Udaltzainak . . . . . 943 362442
- Ertzaintza . . . . . 943 288888
- SOS Deiak . . . . . 112
- Udala**
- Erregistroa . . . . . 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kirologia . . . . . 943376182
- Kulturetxea . . . . . 943376181
- Bakezko epaitegia . . . . . 943371629
- Zerbitzu Sozialak . . . . . 943376179
- Zentro Zibikoa . . . . . 943363958
- KIUB . . . . . 943361605
- Udal euskaltegia . . . . . 943361621
- Obrak eta zerbitzuak . . . . . 943 376180



**Gazte Informazioarako Bulegoa**

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

**Parke eta lorategietako bi teknikari Donostiako udalerako**

Donostiako Udalean Mugikortasuneko erdi-mailako bi teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia. Bete beharrekoak: Nekazaritzako edo Basogintzako ingeniari titulua, edota Ingurumen Zientzietako, Biologiako edo Mendiko Ingeniaritzako lehen zikloko titulua izatea; 3. hizkuntza-eskakizuna. Izena emateko epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 egun naturalak. Informazioa Donostiako udalean, Ijentea 1; tel.: 943 48 10 00; faxa: 943 42 67 81; e-maila: udala\_erregistroa@donostia.org; web orria: www.donostia.org.

**Zuzenbidean lizentziatu bat Zarauzko Udalerako**

Zarauzko Udalean Zuzenbidean lizentziatu bat lehiaketa bidez aldi baterako kontratatzeko deialdia. Bete beharrekoak: Zuzenbideko lizentziatura eta euskarako 3. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea izatea. Izena emateko epea, abenduaren 12ra arte. Informazio gehiago Zarauzko Udalean, Giza Baliabideetako Departamentuan Zigorria kalea, 13an; tel.: 943 00 51 06; web orria: http://www.zarauzko.org/antBusepre.asp?cod=14512&nombre=14512&prt=1.

**Lehen mailako ofizial igeltsero plaza bat Bergarako Udalean**

Bergarako udaleko obra eta zerbitzuetako brigadarako lehen mailako ofizial igeltsero bat betetzeko kontratatzeko lehiaketa-epaioa. Bete beharrekoak: eskola-graduatu edo baliokidea, 2. hizkuntza-eskakizuna eta B motako gidabaimena edo baliokidea izatea. Izena emateko azken eguna abenduaren 17a. Informazioa Bergarako udalean, San Martín Agirre Plaza, 1; tel.: 943 77 91 00; faxa: 943 77 91 63; e-maila: bergara@bergara.net; web orria: http://www.bergara.net/Udala/Deialdiak/UdallanEskaintzak/igeltseroa.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Neurri berezien akordioa Michelinen

■ CCOO, UGT, ESK eta CSIrri esker atera zen aurrera, LABek aurka egin zuen eta ELA abstenitu zen

TXINTXARRI

Lehenago astean Michelin Espainiako zuzendaritzak ibilgailuen, sektoreko ekoizpena eta salmentaren jaitziera dela eta, Estatuko filialetan ikuspegi beltza agertu zuen. Michelinetik ez du enplegua erregulatzeko dosierri aurkeztuko, ezta behin behineko kaleratzerik egingo ere. Hala ere, neurri bereziak aurkeztu dizkie enpresa komiteei.

Michelin-Lasarteko zuzendaritzak proposamena ostiralean egin zion enpresa komiteari. Honetan, 2009an sistema aldakorretako langile bakoitzeko 30 edo 15 eguneko jarduera eza eta 15 eguneko beste sistemetan eta ordu hauek hurrengo urteetan enpresak behar duenean sartu beharko dituzte.

Hau onartzeak egutegi eta lan sistema malgutasuna dakar, izan ere, enpresa eta egoeraren beharretara moldatu beharko baitira langileak. Gainera, jarduera eza egunak 48 orduko tarterekin jakin araziko zaizkie langileei.

Enpresak dioenez, neurri hauek esker, ez da soldata jaitziera, kaleratzerik edo neurri

zorrotzagorik egongo 2009ko urte bukaera arte.

Asteartean, akordioa aurrera atera zen CCOO, UGT, ESK eta CSIrren botoei esker, ELA abstenitu zen eta LAB kontra agertu zen.

## Sindikatuaren iritzia

Sindikatu desberdinekin jarri gara harremanetan akordioari buruzko iritzia jakiteko eta hauek dira izan ditugun erantzunak.

"Enpresak ez du konpromisorik hartu egitean neurri traumatikoak hartu ahal ditzake. Txeke zuria eman zaio, ezere truk," adierazi digu Jon Martin LABeko enpresa komiteko kideak, baita "garbi dugu neurri honek ez duela ezer bermatzen. Behar izanez gero, egoerak okerrera egingen badu, enpresak neurri zorrotzagoak hartuko dituela uste dugu."

Honekin batera proposamena onartu duten sindikatuak kritika egiten die LABek. "Enpresak beldurra sartu du eta hauek proposamena onartu dute." Bestalde, ESKren baiezkotza azpimarragarria dela deritza, "jarrera aldatu du, sindikatuaren gainetik beste interesak jarri dituztela uste dugu."

ESKak ere bere jarrera



Duela urte bete, gutxi gora behera, enpresa komiteak lanpostuen murrizketaren aurka egin zuen. Arg: Xabier Bobillo

argudiatu du. "Mundu osoan langileak bortizki astintzen dituen krisi kapitalista bizi da. Euskadin eta Estatu osoan mila dira langabeziako zerrenda betetzen duten ibilgailuen industria, zein erakuntzako langileak, bai enpresen ixteagatik edo enplegua erregulatzeko dosierengatik. Gainera, oraindik ez da, borroka mailan, indar

korrelazioa langileen alde jarriko duen erantzun orokorrik eman, langileok krisiaren pairatzaile izan ez gaitezen," dio igorri diguten testuan.

Eta honela jarraitzen du, "egoera honetan Michelinetik proposamena egin zuen eta, enpresak dioenez, honi esker neurri zorrotzagoak hartzea enplegua ekiditen du, hala nola, enplegua erregulatzeko

dosiera. Honela egoera aztertu, sail sindikalean egon diren eztabaida eta langileen iritzia jakin ostean, akordioaren alde agertu gara eta sinatu dugu, neurri zorrotzagoak, soldata jaitziera edo kaleratzeak esate baterako, ekidin nahian, baina neurri hauek ezartzen saiatzen badira hauek atzera botatzeko biziki borrokatuko genuke." •

## Musika

### Mikel Laboa guztion gogoan

Kantuz sortu eta kantuz bizitakoa, txoriak ihes egin digu, Mikel Laboa abeslaria astelehenean hil zen. Euskal abeslari estimatua eta herriak maitatua, bere heriotzak hainbat erantzun izan ditu, baita Lasarte-Orian ere.

Astelehena iluntzean, bere kantuak abesteko zenbait herritar elkartu ziren Jalgi kafe antzokian. Mikel Laboari agur esateko, edo hobeto esanda berak eginiko lan guztia eskertzeko asmoz elkartu ziren. Modu inprobisatu eta informalean, Laboaren abestien letren aukeraketa bat egin, gitarra hartu eta, hala nola, Pasaiko herriatik, Txoria txori, Gure bazterrak edo Ama hil zaigu abestu zituzten.

Bestalde, Lasarte-Orian, Eusko Treneko geltokian eta eliza ondoko etxe berrien aterpean pintadak agertu dira. Mikel Laboaren Herria eta hizkuntzako pasarte bat da. Bukaeran guztion sentimena: Agur eta ohore Mikel!! •



## Musika

### Musika Eskolako ikasleak Donostiako Udal Txistulariekin

Lehenago igandean, azaroak 30, Donostiako Konstituzio Plazan, 12:15ean Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako Goiatz Irazabal eta Asier Eizagirre txistu ikasleek Donostiako Udal Txistulariekin batera kontzertua eskaini zuten.

Eguraldia lagun eta haize hotzari aurre eginez, goizeko 9:00etan diana jo zuten Donostiako Parte Zaharretik

hasi eta Artzai Onaren elizara arte eta buelta. Gainera, Donostiako Maratoia zela eta, Boulevardean korrikalariak animatu zituzten biribilketa sorta bat joaz. Ostean, Konstituzio plazako kontzertuan Asierrek Tambourin eta Kontradantza lanak jo zituen eta Goiatzek, aldiz, Nekazal Dantza eta Lantzeko Ihauteri dantza. •



Musika Eskolako Asier Eizagirre ikaslea Donostiako UdalTxistulariekin jotzen.





Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 6**

**10:30etan**, Touring-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Fanderia, Oretetan.  
**11:00etan**, Hernani-Ostadar (Infantil Ohorezko Kopa) Zubipe, Hernanin.  
**12:00etan**, Aloña Mendi-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Azkoagain, Oñatin.  
**19:15ean**, Luberri-Ostadar (Emakumezko Erregionala) Berio, Donostian.

**Igandea 7**

**10:00etan**, Ostadar-Texas Lasartearra (Jubenilen I.maila), Michelinen.  
**11:45ean**, Texas Lasartearra-Ostadar (II. Erregionala) Michelinen.

**PILOTA**

**Ostirala 5**

**20:15ean**, Beloki-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Zumarragan.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 6**

**10:15ean**, Aldaz H.K.-Sasikoa C.D.B (Euskal Liga) Kiroldegian.

**ATLETISMOA**

**Ostirala 5**

**18:00etan**, LOKEko atletik pista estaliko parte-hartze askeko probetan parte hartuko dute Anoetako belodromoan.

Kiroletako oharrak

**Kirol gunea itxita**

Lasarte-Oriako Kirol Gunea (Michelingo gunea) abenduaren 6ean eta 8an egun osoaz itxita egongo da. Kiroldegia, berriz, irekita egongo da, 9:00etatik 13:00etara. Kirol zerbitzueta arduradunek jakinarazi dutenez, egun hauetan abonatuak beste udal kirol instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dutela. Informazio gehiago behar izanez gero ondorengo telefono zenbakietara deitu dezakezue: Andoain (943.300 147), Usurbil (943.372 498) eta Urnieta (943.008 328).

**Kirol emaitzak**

Asteleheneko TXINTXARRIn sartu ez genituen emaitzak:

**Herriko txapelketa**

Siglo 20 - Danena	.....2-2
ISU - Morrison	.....7-0
Katanga - Ainhoa	.....5-4
Epel - Ilargi	.....4-1
Okela - Oria Txiki	.....5-2
Tragoxka - Obelix	.....2-4
Mayi - IOB H.K.	.....9-2
Oria kris. - Jordi	.....2-9
Izarra - Biyona	.....1-1
Viña del Mar - Lurra XXI	.....2-1
Buenetxea - Izkiña	.....1-0

**Lasarteoriarrak Donostiako maratoian**



Ostadarreko Atletismo taldeko kide batzuko Anoetan. Arg.: Joseba Iparragirre

Lasarte-Oriako hogeit bat lagunak aurreko igandean Donostiako Maratoian parte hartu zuten eta ondorengoak dira helmugara iritsi zirenak: Jose Luis Delgado (2:37:10); Txiki Manterola (2:51:06); Mikel Izagirre (2:56:29); Iñaki Sudupe (2:57:52); Toño Perez (3:03:46); Ivan Granado (3:05:18); Juanan Centeno (3:06:58); Mikel Calvo

(3:10:27); Iñaki Letamendi (3:19:13); Mikel Escribano (3:22:52); Jose Ignacio Elvira (3:25:40); Guillermo Trombolli (3:25:08); Joseba Iparragirre (3:27:16); Mikel Ormazabal (3:30:12); Aitor Amantegi (3:30:52); Jose Ramon Mendizabal (3:33:10); Iker Elorza (3:40:20); Luis Millan (3:43:38); Lordi Etxaondo (3:48:36); Xabier Prada (3:49:16).•

**Ostadar K.F-k bazkide kanpaina eta atal berriak aurkeztu ditu**



Ostadar Kirol Fundazioko sail desberdinetako kideak asteartean egoitzan egin zuten prentsurrekoan.

**Ostadar Kirol Fundazioak asteartean 2009. urteko Bazkide Kanpaina "25 urte eta gero" lelopean aurkeztu zuen elkarrearen egoitza berrian, baita hurrengo urtetik aurrera martxan izango dituen kirol atal berriak ere -mendia eta zikloturistak.**

Urtero legez, Ostadarrek urtea amaitu aurretik bazkide kanpainari ekingo dio. Aurtengo kanpainaren aurkezpena berezia izan da, ordezkariek kanpainari buruzko informazioa helarazteaz gain, elkarreko hurrengo urtetik aurrera izango dituen atal berriak ezagutzera eman zuten eta.

Kirol elkarreak 25 urte bete dituen urtean, elkarre osatzen duten guztiak, elkarre pixkanaka hazten doala ikusten ari dira. Aurten, atletismo talde herrikoia sortu dute eta urtariletik aurrera

Batasuna KKT elkarteko mendia eta txirrindularitza sailak Ostadarreko saila berriak izatera pasako dira. Izan ere, Batasuna KKT elkarre 30 urteetan herrian mendizaleatasuna eta zikloturismoa sustatu duen arren, aurten elkarteko atek ixtea eta Ostadarren sail horiekin jarraitzea erabaki du. Hala ere, Ostadarrek egun duen kirol eskaintza mantentzen jarraituko du: futbol federatua (8 talde), futbol eskola (63 haur), tenis eskola (35 tenislari), areto-futbol herrikoia (22 talde), atletismoko talde herrikoia (80 atleta), bolo eta toka taldea, eta Lasarte-Oria Bai kros herrikoia.

**Bazkide kanpaina**

Abenduaren 9an, asteartean, bazkide kanpainari hasiera emango diote eta abenduaren 23ra arte luzatuko dela jaki-

narazi zuten elkarteko ordezkariek astearteko aurkezpenen. Egun, laurehun bazkide inguruk babesten dute Ostadarrek gidatzen duen kirol egitasmoa. "Kirol proiektu honen parte izan nahi baduzue, Geltoki Kalea 25. zenbakian aurkituko gaituzue, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00ak arte".

Aurten ere, bazkide guztiaren artean otar bat zozkatzuko dute abenduaren 23an. Ostadarreko atean eta www.ostadarkf.org helbidean zenbaki irabazlea jarriko dute. Bestetik, hurrengo egunetan bazkide guztiak etxean jasoko duten gutunetan, nekazal etxe batean bi pertsonentzako aste buru bat igarotzeko boleto bat aurkituko dute. Sari honen zenbaki irabazlea urtarriaren 7an Ostadarreko egoitzan eta webgunean aurkitu ahal izango duzue. •

**Ilusioa erakutsi dute Futbol Eskolako jokalariek**

Ostadarreko Futbol Eskola osatzen duten 63 jokalariek inguruko eskolekin topaketa izan dute azkeneko bi aste hauetan. Azaroaren 22an eskolako zaharrenek Real Unioneko Futbol Eskolako jokalariekin jokatuko eta disfrutatuko aukera izan zuten, Irungo Gal estadioan. Aurreko igandean, berriz, eskolako txikien txanda izan zen. Hauek Añorgako Futbol Eskolaren aurka jokatu zuten Michelingo futbol zelaietan.

Futbol Eskoletako taldeek lehiatu ezin duten arren, urtean zehar topaketa desberdinak antolatzen dituzte eskola desberdinen artean haurrak elkar ezagutu dezaten. Josean Belartietak eskolako arduradunak azaldu duenez, "beste eskole-



Futbol Eskolako txikiak Michelingo futbol zelaietan. Argazkia: Imanol Aldazabal

kin jolasteko desiratzen egon dira haurrak. Topaketako astean, haur gehienak urduri egon dira, asteburuan partidua zutelako. Aurtengo lehen topaketak

politak izan dira, gainera haurrak bi aste hauetan ilusioz entrenatu eta jokatu dituzte partidak. Nolabait, topaketak motibatuko dituzte. •

Egunero

**Erakusketa**

PILAR SOBERONEN ikasleen margoak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

**Erakusketa**

TOMAS FERNANDEZ ARGAZKI RALLY lehiaketako argazkiak. Kulturetxean, 18:00etatik 21.00etara.

Ostirala, 5

**Kontzertua**

MAKULU KEN taldea Xpersion! elkarte eta Udaleko Gazteria Sailak sinatutako hitzarmenaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 6

**Itakuntronik**

ARITZ SOUND SYSTEM DJaren emanaldia Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

DES296 DJaren Hip hop-Old school. Siglo XX tabernan, 00:00etatik 03:00etara.

GORA! DJaren erritmo beroak. Abend kafe-antzokian, 00:00etatik 05:00etara.

DJ KA 100% GOURMET-en Hip Hop-a. Obelix tabernan, 22:30etik 01:30era.

Asteazkena, 10

**Ipuin-kontalaria**

BEATRIZ EGIZABALEN ipuin zoragarriak 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan.

Osteguna, 11

**Hitzaldia**

BORTIZKERIA EDO AGRESIBITATE SOZIALARI buruzko hitzaldia eskainiko du Xabier Arrazolak. Kulturetxean, 19:00etan. GAZTELANIAZ

**Oharrak**

**Aterpeko Eguberriko kanpaina**

Abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra, ez galdu aukera: Aterpea txartelarekin egin zure erosketak. 30 euroko erosketa bonoak lortu ditzakezu Aterpean elkarteko kide diren dendetan.

**2009ko egutegia**

Lasarte-Oriako Ingurumeneko, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitateko departamenduak jakinarazi nahi du, dagoeneko eskuragarri dagoela 2009ko egutegia eraikin munizipalean (KIUB, udaletxea, kulturetxea, Villa Mirentxu, kiroldegia). Publikazioak departamenduak duen filosofia adierazten du, gure ingurua babestu beharraz mezuaren bitartez.



*Ikusle izatetik artista izatera pasako den pailazoa*


NIK EGIN BEHARKO antzezlan eskainiko du Zirika Zirkus taldeak. Gure pailazotxoan oportetarik heldu da, maleta eta guzti. Ikuski-zun bat ikustera sartu da. Edozein ikusle bezala eseri eta ikuski-zunaren zain egongo da. Denbora pasa ahala bai bera, baita ikuslegoa ere, konturatuko dira artistarik ez dela heldu. Berehala ezenatokiaren jabe egingo da, umorea, akrobaziak, klake-a, sorpresak... Ekitaldi hau Kultur Errotaren barne dago (Topagunea).

GAUR 22:30EAN  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN  
EUSKARAZ

Ostirala, 12

**Dantzaldia**

ARGIRA ikuskizuna eskainiko du Verdini dantza taldeak. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



**Jam sesioa**

EMONKITION talde gonbidatuak emango dio jam sesioari hasiera. Jalgin, 22:30ean.

Larunbata, 13

**Antzerkia**

ANIMALIAK lana eskainiko du La Dinamika antzerki taldeak. 5 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ

Igandea, 14

**Zinea**

BASOAREN ARIMA haurrentzako filma. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 17:00etan. EUSKARAZ

18:00etatik aurerra abenduaren 7a arte, hau barne.

**Katxalin Elkarteko loteria**

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Bulegora. Txartel bakoitzak 3 euroko balioa du, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria erosteko pasa KIUBetik, Gabon kalean.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Eskutitzak**

**Urrunegi...?**

Urrun esan genezake. Urrunegi agian. Ikusten ditugula gure Gipuzkoako espetxeratuak, orokorrean: bai politikoak, bai sozialak. Agintariak kartzelez eta gizarteratze-politikaz aho betean ari diren bitartean, presoei euren eguneroko bizi-iraupenari eutsi behar izaten diote, gogor eutsi ere!

Bai baitakite egungo kartzelak gizarteratzaileak ez baino, sistemaren mendekua gogorarazteko erreminta perfektuak direla. Eta egoera jasangaizta izango dutela muntai guzti honen aurrean egunero, orduro... momentu oro.

Gizarteak ba al daki egun Gipuzkoan zenbat preso dugu? Eta zer "gaizkile" mota dugu lurraldeko espetxean? Euskal herritarrek diren edo atzerritarrek diren?

Egun, Gipuzkoan dugun

espetxea guztiz zaharkiturik dagoela nork ez du entzun? Eta, nork ez daki Zubietan egin nahi duten makro-espetxeak 1.000 (!) presotik gora hartzeko edukiera izango duela? Zeintzuk dira benetan Gipuzkoaren "espetxe beharrak"? Ba al da espetxe politika egokirik? Zergatik daude buruko gaixotasunak dituzten pertsonak kartzelan? Edo, zuzena al da kotxe batera lapurretara sartu dena (hukeria bat lapurtzen saiatu dena) kartzelaratzea? Zuzena al da sistemak nahi lukene bezala pentsatzen, idazten, militatzen ez duen pertsona (ezer egin gabe) espetxean sartzea? Ezinbestekoa ote da kartzela bera? Ez dago ezer egokiagorik? Zergatik ez dituzte sartzen kartzelan gaizkile handiak? Dudarik gabe galdera asko egin litezke bidegabekeriaren oterra tamalez oparaoz baita.

Ziur gaude guztiok eza gutzen dugula espetxean egon den gertukoren bat: laguna, herrikoa, familia-koa... Halaber, espetxe barruko benetako funtzionamendua, oro har, "hiritar arruntari" urrun geratzen zaion errealitatea dela esan genezake. Zergatik? Zergatik justiziaren ordez, mendekua? Zergatik laguntzen dute instantzia ofizialetatik zigorroreko joera hori? Zergatik segitzen dute kartzela barruan tortura fisiko eta psikologikoak aplikatzen? Zergatik drogenaren merkatu beltzak kartzela barruan?

Zergatik hiltzen dira hainbeste preso (Langraitz batean, adibidez) sobredosia hartzearen? Zergatik, denak preso badira, politikoei eta sozialei erregimen zeharo desberdinak aplikatu?

Egun sistemak, "gaizkile" mendekatzeaz gain, gizarteratik aldentzen duela, bazterketa soziala bultzatuz automatikoki. Pertsona honen suntsipen morala gauzatuz eta, ausardia pittin batez esan genezake, suizidiora bultzatuz, beste arazorik sor ez diezaion sistemari. Gutxi ote dira kartzela barruan bere buruaz beste egin dutenak?

Martuteneko egoera latzak, are latzagoak izateko arrisku larria dute espetxeratuak, makro-espetxea (agintarien hitzetan "erreduzko zentroa") egitea lortzen bada. Edo, zurrumurruak geroz eta indar handiagoz berresten ari diren bezala, kartzela-mundua bera ere pribatizatu egiten bada: presoen garraioa, gorilak, torturatzaile pribatuak...

Noski, norbaitek esan lezake orain baino okerrago nekez egongo direla, egungo espetxearen egoera fisiokoagatik. Dena den, ez dezagun ahaztu Makro Torturategian giza harremanak oso eskasak direla, praktikoki objektu huts bihurtzen delarik presoak.

Makro-espetxearen (eta makro-merkatu beltzaren, makro-suizida taldearen, makro-negozio ilunaren...) aurkako taldetik, gizarteratik galdera guzti hauen erantzunak emateko prestutasun osoa dugu. Baita egungo espetxe sistema salatzeke borondate argia ere. Benetako gizarteratze politikak proposatzeko, bultzatzeko, exijitzeko... asmo eta gogoak. Arazoen muinetik, arazo bera jorratzeko beharrendu aldarrikapena egitea, alegia.

Beraz, herritarrok, ea lortzen dugun espetxean egungo gordintasanaz jabetzea eta pertsonen suntsipenerako pausorik eman ez dadin, alderdi horretatik, oraingoz.

**Makroespetxearen aurkako taldea**



# Euskaraz bai, pauso bat harago

TXINTXARRI

**Pauso bat harago emateko deia egin du Kontseiluak. Urrats hori emateko hitzordua abenduaren 13an 18:00etan Bizkaia Arenan izango da. Bertan, Kontseiluaren ibilbidea azaltzeaz gain, Euskaraz baina iristeko proposamena egingo digute.**

1995. urtean, Egunkaria Sortzen elkarteak egindako bileran, bilatu behar dira Kontseiluaren erroak. Euskararen egoeraz kezkatutik, euskalgintzako hainbat pertsonen foro berriak sortu beharra apatu zuten orduan, iritziak elkarri azaldu eta gogoeta egiteko topaguneak atontzeko. Hainbat bilera eta mintegi egin ziren ondoren, ordura arte egindako diagnostikoa berretsi zutenak: euskalgintzaren indarrak kohesionatzeaz eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa eragiteaz erabateko adostasuna azaldu zen.

Prozesu honen haritik, 1997. urteko martxoan Euskararen Unibertsoa Jardunaldiak egin ziren Donostian; euskalgintzari eta euskal gizarte osari egindako deiari 400 eragile inguruk erantzun zioten eta bi egunez euskararen inguruko eztabaida mamitsuak egin ziren. Hain zuzen ere, bertatik jaso zuten behin behineko talde eragileak Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortzeko agindua.

Beharrezko urratsak egin eta 1997ko abenduaren 6an Durangoko Historia Museoa sortu zen Kontseilua. Geroztik, apurka-apurka, Kontseilua handituz eta bere bazkide kopurua ugartuz joan da.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak indarrez hasi zuen bere ibilbidea *Bai euskarari* kanpaina jendetsuarekin. Euskaltzaleek 1998. urteko abenduko egun hotz baina itxaropentsu batean, leloarekin bat egin zuten Euskal Herriko 5 kirol estadioetan batera egindako ekitaldian. Honela, 20 urte lehenago erabilitako *Bai euskarari* berea egin zuen Kontseiluak, baita denona ere.

## Euskaraz bai

Hamar urte igaro dira ordutik. Hamaika arlotan lan egin du ordutik euskalgintzak euskararen normalizazioa lortzeko, hau da, euskaraz naturaltasunez bizitzeko. Hamaika ahal egin arren, Kontseiluak gaiari berrekin dio, hau da, euskararen egoera aztertu eta erronkak zeintzuk diren hausnartu du.

Oraindik lortutakoa ez da nahikoa, euskaraz gaur egun ez baitu etorkizuna ziurtaturik. Haatik, euskararen normalizazioa posible dela argi dauka. Eta euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea da klabea.

Euskaraz naturaltasunez bizitzea lortzea posiblea delako, baina horretarako euskararen ezagutza areagotu behar delako, Kontseiluak 10 urte bete ondoren *Bai euskarari* leloa pauso bat harago eraman du. *Euskaraz bai* esateko eta egiteko garaia da. "*Euskaraz bai* euskaldunon leloa izatea nahi dugu. Ez da Kontseiluak bakarrik esaten eta egiten duen zerbait. *Euskaraz bai* eguzkia denona da, euskararen normalizazioaren ardura denona delako," azaldu du Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak.



## BECeko jaialdia

BEC-en egingo den ekitaldiko kartelean, Neil Armstrong-ek famatua egin zuen lorratza ikus daiteke, *Pauso bat harago* izenburupean.

Kontseiluko idazkari nagusiak azaldu bezala, "aurkeztu dugun kartelean irakur daitekeen bezala, Kontseilua, hamargarren urteurrenarekin batera, pauso bat harago emateko prest dago. Eta euskararen normalizazioaren bidean urrats sendoak eman beharra irudikatu nahi izan dugu ilargiko lorratzaren argazkiaren bitartez."

Gaineratu duenez, "urrats hori ez da Kontseiluaren azken xedea, tarte-helburua baizik. Urratsaren bitartez, euskararen normalizazio osoa

eman dadin hartu beharreko konpromiso sendoa irudikatu nahi izan dugu. Baina eguzkia dugu helmuga, *Euskaraz bai* idatzita duen eguzki hori, alegia. Kontseiluaren helburua euskal herritar orok euskarra jakin dezan da, hori baita Euskal Herriaren hitz egiten diren hiru hizkuntza nagusien arteko bizikidetzako egokirako bide bakarra."

"Eguzkira iristeko bidaia hori ez da BEC-eko ospakizun ekitaldian amaitzen. Alderantziz, ekitaldi horretan hasten da benetako bidaia. Edo, hobeto esanda, BEC-en emango diogu orain arte egindako lanari jarraipena. Ezin ahantzi ditzakegu orain arteko lanen ondorioz jasotako uztak. Baina inongo uztarik oparoe-

na jasotzeko, ezinbestekoa da eguzki horren izpiak indartzea, *Euskaraz bai* esan eta eginez. Horregatik, BEC-en hasi eta datozen urteotan, Kontseiluak abiaraziko duen ontzira igotzeko deia luzatu nahi diegu euskal herritar guztiei."

"Gaur hizpide izan dugun mezua ikusgarritasunez irudikatuko dugu abenduaren 13an, arratsaldeko seietan, bertaratuko diren lagunen aurrean. Euskalgintzak orain arte egindako lanaren atzera begirakoa egiteaz gain, *Euskaraz bai* eguzkira bidean jarriko gaituen ontzi bilakatu nahi dugu Bizkaia Arena. Doako ekitaldia izango bada ere, sarrera eskuratzea beharrezkoa izango baita. Milaka lagunentzako tokia dago ontzi honetan, eta nahi duen oro gonbidatzen dugu bidaiaren hasiera izango den ekitaldira etor dadin," aurreratu du Xabier Mendigurenek.

## Ttakunek autobusa

Abenduaren 13an, Kontseiluak, ekitaldi jendetsua deitu du 18:00etatik aurrera, Barakaldoko BEC-en. Horregatik jaialdira joan nahi duen lasarteoriarrek aukera paregabea dute, Ttakunek autobusa jarri baitu. Autobus txartelak 14 euroko balioa du eta abenduaren 10a arte erosi ahaliko dira.

BECeko ekitaldia doan izango bada ere, sarrera eskuratzea beharrezkoa da. Horretarako hiru aukera daude, bata Ttakunek bulegora gerturatu, bigarrena nierebanoa.com webgunean eta, azkenik, 902 82 02 40 telefono zenbakira deitzea. •



## Gizon, emakume eta haurrentzako moda




### Etixerako eta lanerako arropa

### Larunbat arratsaldetan irekita!

Latxunbe 5 • Tel.: 943 550051 • www.valensl.com • 20120 Hernani